



ZALDIBIAKO UDALA

Iragarkia

Zaldibiko Udalbatzarrak, 2017ko maiatzaren 11an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen haserako onespena ematea bide publikoan terrazak jartzea ordenantzari, jendeaurreko epea pasa ondoren erreklamaziorik ez bada ezartzen onespén hau behin betikoa izango dela esanez. Jendeaurreko epean ez da inongo alegazioarik jaso, beraz ordenantza behin betiko onartuta dago.

Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, onartutako testua argitaratzen da.

Zaldibia, 2017ko uztailaren 4a.—Alkatea. (4970)

ERANSKINA

Bide publikoan terrazak jartzea arautzen duen udal ordenantza.

1. artikulua. Aplikazio-araudia.

Honako udal ordenantza 1985eko Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen 49. eta 85. artikuluek, 1986ko Udalbatzen Ondasunen Araudiaren 77. artikulua, Udalbatzen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 41. artikulua eta 1955eko Udalbatzen Zerbitzuen Araubidearen 1etik 17rako artikuluek xedatutako ahalmenen arabera eratu da.

2. artikulua. Xedea.

Ordenantzaren helburua bide publikoan terrazak eta instalazio osagarriak (aterpeak, toldoak) jartzeko araudi tekniko eta juridikoa zehaztea da.

3. artikulua. Definizioa.

Aurreko artikuluan adierazitako xedetarako, terrazatzat joko dira Udalak baimendutako ostalaritzaren alorreko jarduera baten osagarri diren mahaiak, aulkiak, toldoak eta behin-behineko instalazio mugikorak, batera edo banaka jarrita eta modu iraunkorrean.

Ez dira terrazatzat joko dituzten ezaugarriengatik eta aurre- tiaz udal-baimena jaso izanagatik bide publikoan jarritako instalazio osagarri mugikorak.

Espazio publikoaren okupazioa iraunkorra da okupazioaren iraunaldia ostatuaren irekiera-ordutegiarekin bat datorrenean gutxi gorabehera.

4. artikulua. Aurretik lizentzia lortu beharra dago.

Bide publikoan jarritako instalazioak ohiko erabilera bere- zien kategoria juridikoan sailkatuta daude eta erabili ahal izateko, beti, honako Ordenantza honetan adierazitakoa betez gero jaso daitekeen aurretiko udal-baimena behar dute.

5. artikulua. Instalazioa zilegi den espazioen izaera.

Terrazak jartzeko baimena jabari publikoko edo erabilera publikorako eremuetarako eman ahal izango da.

6. artikulua. Baimena ukatzeko arrazoiak.

Udal organo eskudunak terrazak eta elementu osagarriak jartzeko baimena uka dezake interes publikoaren mesedetan, terrazaren trazatua eta kokapena direla eta, inguruko etxebizitzak 2,5 metro baino gorago edo 2 metro baino urrunago ez badaude, bide-segurtasun arrazoiengatik, herri-lanak nahiz establezimendu dentsitate handia daudelako edo beste arrazoi batzuengatik.

7. artikulua. Ibilgailuak dabiltzan kaleetako espaloietan jarritakoak.

1. Ezin izango da terrazarik jarri bi metro eta laurogeita hamar zentimetroko (2,90 m) zabalera baino txikiagoa duten espaloi edo oinezkoentzako lekuetan.

2. Terrazaren azalerak ezingo du gainditu ostatuaren eraikinaren fatxadarena, espazio-beharrengatik inguruko etxaurreak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, eraikin horietako establezimenduen adostasuna beharko da.

3. 1,5 metroko pasabidea bermatu behar da beti oinezkoen joan-etorrirako eta etxebizitza nahiz lokalen sarbidea libre uzteko.

4. Oinezkoen dentsitatea edo beste arrazoi batzuk tarteko, terraza zintarri parean kokatu behar da pasabidea etxaurre ondoan utzita (eranskin grafikoaren 1. aukera).

5. Segurtasun arrazoiak direla eta terraza zintarri parean kokatu beharra badago zintarriaren eta terrazaren artean gutxienez 30 cm utzi behar dira.

6. Modu ez-ohikoan baimendu ahal izango da terraza bat aparkaleku zonan jartzea. Instalakuntza hauek ondorengo ezaugarri teknikoak beteko dituzte:

a) Ezin izango du lokal nagusiaren zabalera gainditu.

b) Espaloiaaren altuerari jarraipena emango dion tarima baten gainean jarri beharko da.

c) Gutxienez 1m-ko altuera duen hesiaz inguraturik egon beharko da, espaloira ematen duen aldea izan ezik. Udal teknikariek zehaztuko dituzte hesiaren baldintzak, zonaldearen arabera.

8. artikulua. Oinezkoen kaleetako terrazak.

1. Terrazaren azalerak ezingo du gainditu ostatuaren erai-kinaren fatxadarena, espazio-beharrengatik inguruko etxaurreak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, eraikin horietako establezimenduen adostasuna beharko da.

2. 1,5 metroko pasabidea bermatu behar da beti oinezkoen joan-etorrirako eta etxebizitza nahiz lokalen sarbidea libre uzteko.

3. Oinezkoen dentsitatea edo beste arrazoi batzuk tarteko, terraza etxaurretik urrundu beharko da oinezkoen joan-etorria ahalbidetzeko (eranskin grafikoaren 1. aukera).

4. Aintzat hartuko dira baimena emateko garaian ibilgailuen nahiz oinezkoen joan-etorri beharrak. Ibilgailuentzako pasabide nahikoa eta iraunkorra bermatu behar da.

5. Salbuespenez baino ezingo dira arkupe edo ataripe gisako pasabide estaliak okupatu. Udal zerbitzuek zehaztuko dute zein kasutan baimenduko diren terrazak. Horrelakoetan, 1,5 m-ko pasabidea bermatu behar da.

9. artikulua. Plaza eta espazio libreetako terrazak.

1. Terrazak plaza eta espazio libreetan jartzeko eskakizunak kasuan kasuko ezaugarriak aztertuta eta inguruko etxetara eta lokaletarako sarbidea bernatuz, ebatziko dira.

10. artikulua. Toldoak, manparak, haize-babesak edo antzekoak.

1. Establezimenduaren fatxadan ainguratu edo finkatutako toldoak ez ditu honako ordenantza honek arautzen berariazko udal-baimena behar baitute. Toldo mugikorrek eta desmuntagarriak baino ezingo dira jarri terrazak hartzen duen azaleran, eta ez dira lurzoruari ez fatxadari lotuko.

2. Haize babesak, ondorengo ezaugarriak izan behar dituzte:

a) Zeharrargitsua izan behar du erdiko gainazaleraren % 50ean gutxienez.

b) Irmoak eta jarraituak izan behar dira, ertz bizirik gabeak, euskarrietara behar bezala ainguratuak, mugitzea nahiz iraultzea ekiditeko.

c) Kokapena erabakitzerakoan oinezkoen sarbide eta joan-etorri beharrak lehenetsi behar dira.

d) Alboetako toldoen zabalera 3 m-koa izango da gehienez, eta 1,8 m eta 1 m artekoa, berriz, altuera.

e) Hiri-altzariekin harmonia estetikoa gorde behar du ahal dela, eta kolore neutroak erabiliko dira (zuria, krema kolorea, kolore metalizatuak).

11. artikulua. Baimen-eskakizuna.

Baimena eskatu nahi duenak artikulua honetan adierazitako dokumentuez gain, alkateari zuzendutako eske-idazkia aurkeztu beharko du Erregistro Nagusian honako hauek azalduta:

- a) Eskatzailearen izen-abizenak.
- b) NAN, telefono eta helbidearen datuak.
- c) Enpresaren izena, IFZ eta kokapena.
- d) Terrazak hartuko lukeen eremuaren xehetasun nahikoak, mahai eta aulkien kokapena, mahai kopurua eta okupazioaren iraunaldia, besteak beste.

12. artikulua. Terrazaren ezaugarri teknikoak eta kokapena.

Jarri nahi diren elementu guztiek udalaren onespena jaso behar dute. Mahai bakoitzeko lau aulki jarriko dira gehienez ere.

Mahai bakoitzeko eguzkitako bat jarriko da, gehienez. Toldo mugikorrek ere jarri ahalko dira, betiere, terrazak hartzen duen eremua gainditu gabe.

Baldin eta ezaugarriak eta/edo kokapena ez bazaizkie honako ordenantza honetako zehaztapenei egokitzen edo interes publikoa kaltetzen badute, udal teknikariek beste proposamen bat egingo diote eskatzaileari eta egoki deritzona alegatzeko aukera izango du.

13. artikulua. Ebazpena.

- 1. Behin eskakizuna honako Ordenantza honetan zehaztutakoen arabera eginda, eta aurretiazko txosten teknikoa aztertu eta gero, udal organo eskudunak legeak ezarritako epeen barruan emango du ebazpena.
- 2. Baimen-agirian instalazioaren eta elementu osagarrien baldintzak agertuko dira, hala nola, okupazio-azalera, mahai eta aulki kopurua, okupazioaren indarraldia eta beharrezko irizten diren berezitasun guztiak.
- 3. Baimenarekin batera terrazaren kokapenaren eta ezaugarrien plano deskriptiboa igorriko da. Azken agiri hori argi ikusteko moduan eta ikuskatzaileen eskura jarriko da.
- 4. Jabari-publikoa okupatzeagatiko tasak edo Ordenantza urratzeagatiko isunak ez ordaintzeak baimena ukatzeko arrazoi izan daitezke.

14. artikulua. Baimenaren baldintzak.

- 1. Baimenak emandakotzat joko dira, jabetza eskubidea salbu eta hirugarrentzako kalterik gabe, eta ezingo dira argudiatu baimendunari jardunaren ondorioz etor dakioken erantzukizun zibil edo penala desagerrarazi edo arintzeko.
- 2. Udal-baimena beti prekarioan emango da. Dagokion udal organoak instalazioa bide publikotik kentzeko agindu dezake eta kendu beharraren ondoriozko gastuak baimendutako instalazioen titularraren konturakoak izango dira eta ez dute kalte ordainak jasotzeko eskubiderik izango, trafiko, Hirigintza edo interes orokorreko arazoiek horixe aholkatzen badute.

15. artikulua. Tasa eta bermea.

- 1. Lizentziaren titularrak dagokion tasa ordaindu beharko du indarreko Zerga Ordenantza betez.

16. artikulua. Iraupena.

1. Instalazio-lizentziak urtebeterako edo hilabeterako emango dira.
2. Emandako baimena automatikoki berrituko da datozen ekitaldietarako baldintza berberekin eta epe berdinerako, baldin eta aurretik ez bazaio Zaldibiko Udalari baja emateko idatziz eskatu.
3. Egun bereziak direla eta terraza handitzeko aukera izango dute, udalari eskatuz gero eta udalak jartzen dituen baldintzapean.

17. artikulua. Ordutegia.

1. Jarduera nagusiaren ordutegi-baimendua dena delakoa izanda ere, terrazak erabiltzeko ordutegia honako hau da:

— Terrazak bide publikoan jartzeko ordutegia:

Goizeko 9etatik aurrera.

— Terrazak bide publikotik kentzeko ordutegia:

Udako ordutegi berezia (ekaina, uztaila, abuztua eta iraila):

Igandetik ostegunera: 24:00ak arte.

Ostiral, larunbata eta jai-bezperatan: 01:00a arte.

Gainontzekoan:

Igandetik ostegunera: 23:00ak arte.

Ostiral, larunbata eta jai-bezperatan: 24:00ak arte.

2. Udal Organo eskudunak terraza kentzeko ordutegi malguagoa baimen dezake salbuesenez, bai udalerrri osoan, bai zati batean, herriko jaiak edota garrantzi bereziko egunak direlako.

18. artikulua. Instalazioa kentzea.

1. Aurreko artikuluan ezarritako ordutegia amaitutakoan, instalazioaren titularrak baimendutako material guztia bildu beharko du. 20 minutu ditu elementu guztiak bide publikotik kentzeko.
2. Baimendutako materiala jaso ondoren, baimendunak arduratu beharko du erabili duen eremua garbi eta txukun uzteaz.

19. artikulua. Instalazioaren titularraren betekizunak.

1. Betekizun nagusiak eta Ordenantza aplikatzearen ondoriozkoak kaltetu gabe, instalazioaren titularrak erabilera baimenduko lurzoruaren, instalazioaren beraren eta elementu osagarrien garbitasun, segurtasun eta apaintasuna zaintzeko betebeharra du. Horretarako, behar beste paper-ontzi, hautsontzi eta beste erabili ahalko ditu.

2. Debekatuta dago kanpoaldean barrak, bozgorailuak, telebistak, musika-gailuak edo antzeko gailuak jartzea.

3. Instalazioaren titularrak auzokoen atseden eskubidea errespetarazi beharko du, hortaz, zalaparta, iskanbila eta/edo zaratak ez ditu baimenduko, batez ere, 23:00etatik aurrera.

20. artikulua. Arau-haustea.

Ondokoak arau-hauste arintzat jotzen dira:

- a) Agindutako ordutegiaz kanpo terrazak jartzea.
- b) Baimendutako kopurua baino elementu (mahai, aulki eta elementu osagarri) gehiago jartzea.
- c) Baimendutako kokapenaz kanpo jartzea mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak.
- d) Okupazio-espazioa behar bezalako apaintasun, segurtasun eta garbitasun baldintzatan ez edukitzea.
- e) Ordenantzan zehaztutako arau-hauste arinaren errudun izatea.

Ondokoak arau-hauste larritzat jotzen dira:

- a) Lizentziarik gabe jartzea terrazak eta elementu osagarriak.
- b) Instalazioaren titularrak hiru arau-hauste arin pilatuz gero behin betiko zigor ebazpena jasoko du.

21. artikulua. Zigorrak.

Ordenantza urratzea ondorengo eskalan adierazitako isunekin zigortuko dira.

- a) Udal aginduei ez obeditzean, 1.500 € arteko isuna eta/edo baimena ezereztatzea eta, ondorioz, instalazioa berehala kentzea arau-hauste arinengatik.
- b) Gertakarien larritasuna aintzat hartuta, 3.000 € arteko isuna eta/edo ordenantza honetan araututako etorkizuneko terrazarako baimen-emateetan parte hartzeko inhabilitazioa.

22. artikulua. Udal baimenik gabeko instalazioak.

Udal Organo eskudunak, aurretiaz interesduna entzuteko epea ireki eta gero, berehala kendu ahalko ditu baimenik ez duten terrazak, arauak agindutako zigorrak ezartzea kaltetu gabe.

23. artikulua. Betearazte subsidiarioa.

Instalazioaren arduradunak bide publikoan jarritako elementuak kentzeko udal-aginduari muzin egingo balio, Ordenantzak zehaztutako kasuren bat eman ez gero, Udalak terraza kentzeari ekingo dio eta udal biltegietan gordeko ditu jasotakoak. Jabeak elementu horiek guztiak berreskuratu ahal izango ditu dagokion zenbatekoa ordaindu eta gero.